PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA-RI LEGE ETA ZERGA ARLOAN AHOLKULARITZA IRAUNKORRA ETA INTEGRALA EMATEKO ZERBITZU PROFESIONALAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTU BEHARKO DUENA

1. AGIRIAREN XEDEA

Kontratuaren xedea izango da SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAri lege eta zerga arloan aholkularitza iraunkorra eta integrala emateko zerbitzu profesionalak egitea, batik bat kontratazio publikoaren esparruan, baita haren sozietate publikoaren izaerarekin eta erakundearen jarduera sektorearekin berariaz lotutako gainerako arazo juridikoez arduratzea ere, Agiri honetan, Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta horren Karatulan jasotakoaren arabera.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da aipatutako esparruetan bereziki kualifikatutako eta adituak diren pertsonek gauzatzea prestazioa, aditu horien berehalako eta aurrez aurreko erantzuna bermatzeko.

Kontratuaren CPV kodea hau da: 79100000-5 (Zerbitzu juridikoak).

2. LANEN IRISMENA

Zehazteko asmorik gabe, eta azalpen gisa soilik, kontratazioak barne hartzen du, besteak beste, lege eta zerga arloko aholkularitza orokorreko zerbitzu profesionalak ematea; bereziki, esparru hauetan:

a) Araubide juridikoa eta barne funtzionamendua:

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAk sozietate merkataritzako zuzenbideari buruz egiten dituen kontsultak aztertzea eta ebaztea, hots: sozietateak eratzea; estatutuen aldaketak; estatutuz kanpoko itunak; batzar nagusiak; administrazio organoak; administratzaileen erantzukizuna eta administrazio kontseiluaren erregelamenduak; kapitala handitzea eta murriztea; galerak konpentsatzeko ekarpenak; eraldaketak, bat-egiteak, zatiketak eta desegiteak; liburu ofizialak eramatea; eskritura publikoak egiteko eta Merkataritza Erregistroan inskribatzeko beharrezkoak diren eginbideak prestatzea eta horien jarraipena egitea; etab.

- Beharrezkoa denean, merkataritza dokumentuak prestatzen laguntzea, hala nola aktak, deialdiak, ziurtagiriak, txostenak, etab.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMO SAri aholkularitza ematea Administrazio Kontseiluak aztertu beharreko gaietan, eta, beharrezkoa denean, Kontseiluaren bileretara letradu aholkulari bat joan dadin bermatzea.

- Hertsiki sozietatekoak ez diren gaiei buruz egiten diren kontsultak aztertzea eta ebaztea, hala nola lehiaren eskubideari, erabiltzaileei eta abarri buruzkoak.

b) Sektore publikoa:

- Kontratazioa: SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAren kontratazioari buruz egindako kontsulta guztiak aztertzea eta ebaztea, eta, oro har, kontratazioaren jarraipena egitea fase guztietan (egikaritzea eta azkentzea barne). Bereziki, aholkularitza horrek honako alderdi hauek barne hartuko ditu: a) adjudikazio prozedura zehatzak eta bete nahi diren premiei dagokienez egokiena den kontratu tipologia aukeratzen laguntzea; b) lizitazio prozedurak arautuko dituzten baldintza agiriak egitea; c) hala badagokio, lizitazio prozedurak arautuko dituzten baldintza agiriak berrikustea; d) zuzenean esku hartzea lizitazio prozedurak adjudikatzeko prozesu osoan; e) gutun azalak irekitzeko egintzetara joatea, hala badagokio; f) baldintza agirien eta esleipenen proposamenak kontratazioari buruzko legezko araudira egokitzen diren berrikustea, eta, hala badagokio, bidezko txostena egitea; g) sozietateko kontratazio organoak egindako adjudikazioaren ondorioz sinatuko diren kontratuak prestatzea; h) hala badagokio, kontratazioaren arloko errekurtsoen aurrean agertzea eta esku hartzea.

  Oro har, SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA administrazio zuzenbideari lotzearekin eta berori aplikatzearekin zerikusia duen guztia, administrazio zuzenbidearen esparruko sektore publikoko erakundea den aldetik.

- Beste administrazio publiko batzuekiko eta, oro har, sektore publikoko erakundeekiko harremana (jarduketa enkarguak, hitzarmenak, etab.).

- Ondare araubidea (emakidak, baimenak).

- Oro har, SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA administrazio zuzenbideari lotzearekin eta berori aplikatzearekin zerikusia duen guztia.
- Administrazio zuzenbidearen esparruan sortzen den edozein gai.

c) Zibila eta administratiboa:

- Sor daitezkeen gai zibilak aztertzea eta ebaztea (errentamenduak, azalera eskubideak, gozamenak, bahiak, hipotekak, salerosketak, etab.).

- Oro har, SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA administrazio zuzenbideari lotzearekin eta berori aplikatzearekin zerikusia duen guztia, baita administrazio-zuzenbidearen esparruan sortzen den edozein gairekin lotuta ere (hirigintza, ingurumena, nahitaezko desjabetzea, ondare erantzukizuna, etab.).

d) Defentsa:

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAren zuzendaritza eta ordezkaritza, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren, jurisdikzio zibilaren edo merkataritza jurisdikzioaren esparruan sortzen diren mota guztietako auzietan.

e) Arlo hauen gaineko aholkularitza: jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak, enpresa sekretuak, teknologia berriak, merkataritza elektronikoa eta aktibo informatikoen kontratazioa:

- Aholkularitza ematea mota guztietako kontratuak negoziatzeko, formalizatzeko eta gauzatzeko, baita jabetza intelektualeko/industrialeko eskubideekin eta/edo enpresa-sekretuekin lotutako bestelako dokumentazio juridikoa ere.

- Web orrien legezko ikuskapena.

- Informazioaren gizarteko eta merkataritza elektronikoko zerbitzuen arloko lege aholkularitza.

- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen arloko lege aholkularitza.

- Aktibo eta/edo zerbitzu informatikoekin lotutako kontratuen gainean aholkatzea, eta horiek idaztea, berrikustea eta negoziatzea.

- Honako arlo hauetan egiten den edozein kontsulta aztertzea eta ebaztea: jabetza intelektuala eta industriala, enpresa sekretuak, teknologia berriak, merkataritza elektronikoa eta aktibo informatikoen kontratazioa.

f) Datu pertsonalen eta eskubide digitalen babesari buruzko aholkularitza:

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAri aholkularitza iraunkorra ematea honako hauetan ezarritako betebeharren inguruan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena (aurrerantzean, DBEO); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (aurrerantzean, DB-EDBLO).

- Datu pertsonalak babestearen arloan eragina duen edozein kontratu dokumentu berrikustea eta idaztea.

- Datu pertsonalak babestearen arloan eskumena duten erakunde administratibo eta/edo judizialen aurreko prozedurak zuzentzea.

g) Compliance penalaren arloko aholkularitza:

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAren compliance penalari buruz egindako kontsulta guztiak aztertzea eta ebaztea.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAren compliance penala jarraitzea eta neurtzea.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAren compliance penalaren funtzionamenduari dagozkion urteko txostenak prestatzeko lankidetza.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAren compliance penalari buruzko litezkeen hobekuntzak proposatzea eta, hala badagokio, hura egokitzea.

h) Aholkularitza juridiko-fiskala:

- Zerga-politika zuzena eta egokia ezartzera bideratutako zerga plangintza egitea, legea hobeto aplikatzeko eta litezkeen arriskuak murrizteko, bereziki sozietateen gaineko zergari, balio erantsiaren gaineko zergari (BEZ) eta ondare eskualdaketen gaineko zergari (OEZ) dagokienez.

- Zerga arloan egiten den edozein lege aldaketa igortzea, baita SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAren interesekoa izan daitekeen gainerako dokumentazioa eta informazioa ere.

- Ekitaldi bakoitzari dagokion sozietateen gaineko zergaren gastua kalkulatzea, eta aldian-aldian zerga agintaritzen aurrean aurkeztu behar diren zerga aitorpenak egiten laguntzea, horien edukia ikuspuntu materialetik eta formaletik aztertuta, eta SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAri jakinaraztea haren erabakia edo laguntza behar duten alderdiak, zerga tratamendu mesedegarriena lortzeko.
- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAk egokitzat jotzen dituen kontsultak ebaztea berari eragiten dioten zerga gaien inguruan, bereziki sozietateen gaineko zergaren, BEZaren eta OEZaren inplikazioei buruz.

- Agintari eskudunen aurrean aurkeztu beharreko edozein kontsulta, idazki edo baimen, errekurtso edo erreklamazio prestatzea eta aurkeztea.

- Zerga ikuskapenetan parte hartzea.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAk eskatuta, bereziki konplexuak, zabalak edo garrantzitsuak diren zerga gaiei buruzko txostenak idaztea, baita dedikazio espezifikoa eta jarraitua eskatzen duten lanak egitea ere.

i) Lan aholkularitza:

- Goi-zuzendaritzako lan harreman bereziari, kontratazio araubideari eta klausula bereziei (blindajeak, iraunkortasuna, eskumenik eza, etab.) buruzko aholkularitza. Administrazio organoko kideen zerrenda artikulatzeari buruzko aholkularitza.
- Beste lan harreman berezi batzuei buruzko aholkularitza.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SAk eskatuta, bereziki konplexuak, zabalak edo garrantzitsuak diren laneko gaien inguruko txostenak idaztea, baita dedikazio espezifiko eta jarraitua eskatzen duten lanak egitea ere.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA zuzentzea eta ordezkatzea honako hauen aurrean: Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala eta Diruzaintza Nagusia, lan-istripuen ugazaben mutualitateak, Laneko Zuzendaritza eta Ikuskaritza, Osasun eta Gizarte Segurantzako Ordezkaritza eta Ikuskaritza, Enplegu Bulegoa eta Enpleguko Institutu Nazionala.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA zuzentzea eta ordezkatzea Bitartekaritza, Arbitraje eta Adiskidetze Institutuaren aurrean.

- SAN SEBASTIÁN TURISMO – DONOSTIA TURISMOA, SA zuzentzea eta ordezkatzea lan arloko jurisdikzioaren esparruan sortzen diren mota guztietako auzietan.